| 435 | Iñaki | Artola | Donostia |
| 436 | Juan | Zaldua | Donostia |
| 437 | Izaskun | Arbelaiz | Hondarribia |
| 438 | Izarraitz | Arbelaiz | Irun |
| 439 | Aitor | Insausti | Zaldibia |
| 440 | Abel | Mateo | Cabanillas |
| 441 | Eduardo | Alonso | Cabanillas |
| 442 | Marian | Ijurra | Arbizu |
| 443 | Ander | Gaviña | Gasteiz |
| 444 | Dani | Lopez | Urnieta |
| 445 | Aitor | Urizar | Oñati |
| 446 | Garikoitz | Pereda | Berastegi |
| 447 | Aintzine | Larreina | Gasteiz |
| 448 | Iñigo | R.Apodaca | Gasteiz |
| 449 | M carmen | Martin | Urnieta |
| 450 | Mikel | Eguren | Andoain |
| 451 | Oihana | Oleaga | Donostia |
| 452 | Nagore | Martiarena | Irun |
| 453 | Fran | Araña | Arbizu |
| 454 | Joni | Araña | Arbizu |
| 455 | Larraitz | Sorron | Zumarraga |
| 456 | Maider | Behobide | Berriz |
| 457 | Maialen | Aranegi | Arrasate |
| 458 | Nerea | Gomez | Irun |
| 459 | Javier | Hernandez | Errenteria |
| 460 | Marcos | JP | Hendaia |
| 461 | Olatz | Hernandez | Andoain |
| 462 | Edurne | Elizondo | Hernani |
| 463 | Juan maria | Indacoechea | Lesaka |
| 464 | Israel | Arbizu | Etxarri |
| 465 | Mattin | Jauregi | Ikaztegieta |
| 466 | Axier | Zabaleta | Donostia |
| 467 | Oier | Escudero | Andoain |
| 468 | Endika | Peñalosa | Irun |
| 469 | Pablo | Pacheco | Andoain |
| 470 | Igor | Arregi | Donostia |
| 471 | Iban | Estebez | Urnieta |
| 472 | Mikel | Biain | Oñati |
| 473 | Mikel | Leal | Irun |
| 474 | Alex | De la Vega | Eibar |
| 475 | Lorenzo | Galeano | Elgoibar |
| 476 | Begoña | Villas | Urnieta |
| 477 | Ainhoa | Jauregi | Urnieta |
| 478 | Mikel | Agirresarobe | Irun |
| 479 | Javier | Gonzalez | Urnieta |
| 480 | Ander | Goenaga | Donostia |
| 481 | J.Ignacio | Moreno | Villabona |
| 482 | Juantxo | Civico | Donostia |
| 483 | Raquel | Bermejo | Donostia |
| 484 | Isabella | Leibrandt | Barañain |
| 485 | Jose luis | Roig | Barañain |
| 486 | Josu | De los mozos | Lezo |
| 487 | Sara | Diaz | Urnieta |
| 488 | Mikel | Martinez | Lasarte |
| 489 | Iñigo | Gurrutxaga | Donostia |
| 490 | Jose Mari | Izagirre | Donostia |
| 491 | Manex | Elortza | Donostia |
| 492 | Nagore | Irastorza | Hernani |
| 493 | Anna | Saul | Oiartzun |
| 494 | Aritz | Urdampilleta | Oiartzun |
| 495 | Alatz | Agirre | Arbizu |
| 496 | Miren | Arregi | Hernani |
| 497 | Nestor | Iñarra | Irun |
| 498 | Ivan | Hernandez | Lezo |
| 499 | Izaskun | Zabala | Ibarra |
| 500 | Manuel | Huerta | Lezo |
| 501 | Eneko | Aliende | Gasteiz |
| 502 | Josema | Ramada | Donostia |
| 503 | Eñaut | Lasarte | Donostia |
| 504 | David | Garcia | Irura |
| 505 | Olatz | Garikano | Donostia |
| 506 | Javier | Garcia | Donostia |
| 507 | Urko | Peñasco | Donostia |
| 508 | Maria | Sanchez | Bergara |
| 509 | Ana | Balenziaga | Bergara |
| 510 | Guillermo | Larumbe | Donostia |
| 511 | Gorka | Artola | Donostia |
| 512 | Mikel | Azcue | Donostia |
| 513 | Diego | Martinez | Donostia |
| 514 | Ruben | Hernandez | Donostia |
| 515 | Nahikari | Hospital | Donostia |
| 516 | Asier | Garitaonandia | Andoain |
| 517 | Arantxa | Ruiz | Andoain |
| 518 | Jon | Labaka | Urnieta |
| 519 | Iñigo | Unanue | Usurbil |
| 520 | Nerea | Arregi | Donostia |
| 521 | Juanjo | Nebreda | Donostia |
| 522 | Arkaitz | Bernedo | Elgoibar |
| 523 | Jon | Larrañaga | Mendaro |
| 524 | Francisco | Romero | Lasarte |
| 525 | Lander | Iturralde | Hernani |
| 526 | Jose Luis | Lopez | Urnieta |
| 619 | Pello | Esnaola | Donostia |

**PROBA AMAIERA**
Dutxak eta hamaiketakoa Xoxokan bertan.

**SARI BANAKETA EKITALDIA**
13:00 Xoxokan bertan.

**OHARRA: SEINALEAK IBILBIDEAN**
Ibilbide luzeko seinaleak, zuriz agertuko dira.
Ibilbide motzeko seinaleak, arrosaz agertuko dira.



# Ibilbidea lasterkarien ahotan

**Marka onenak lasterketan:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| MUT | 1:49:49 | Jokin Lizeaga | Urnieta |
| NES | 2:07:04 | Maite Maiora | Mendaro |
| KADm | 1:02:23 | Xabier Garate | Zarautz |
| KADn | 1:23:38 | Maialen S.Sebastian | Anoeta |

### Imanol Goñi
**Lehen edizioko irabazlea**

*"Primeran, gogorra, baina primeran. Ibilbidea ederra, dotorea oso"*

### Oier Ariznabarreta
**Lehen edizioko txapeldun-ordea**

*"Ibilbidea oso gogorra da, desnibel handikoa, baina lasterketa polita da"*

### Hassan Ait Chaou
**Lehen edizioan hirugarren**

*"Gogorra iruditu zait, gora-behera askorekin. Baina oso polita"*

### Jon Urdangarin
**Lehen edizioan lehen urnietarra**

*"Norberak egiten du gogorra lasterketa. Proba oso polita da, lan handia egin beharra dago. Pozik nago mendialdean topatu ditugun zaletuek ere asko eta denei berdin animatu dietelako"*

### Ismael Matero
**Lehen edizioan lehen andoaindarra**

*"Lokatz gehiegi zegoen eta majo sufritu dugu"*



### Oihana Kortazar
## "Zegama txikia dela esango nuke"

*"Asko gustatu zait, pila bat. Oso lasterketa teknikoa da, Zegama-Aizkorri txikia dela esango nuke. Bereziki, Adarra igo ondoren egiten den jaitsiera hori eta gero, Zegama-Aizkorri lasterketa etorri zait burura. Eskertzen dut lasterketa bat edo beste etxean egitea, zaletuen animo piloa jaso dudalako. Denei eskerrak eman nahi dizkiet, asko animatzen dute"*

### Jokin Lizeaga
## "Mantso irteteko aholkatuko nieke"

*"Lehen aldiz parte hartzen duen batentzat, maila handiko korrikalaria ez bada, 2:30:00tik jaistea oso denbora ona da. Nire aholkua hasieratik mantso irtetea da. Oso gogorra da, lehen zatia bereziki. Adarra 9. kilometroan zeharkatu behar da eta handik ia 13 kilometro geratzen dira. Jan eta edan dezatela, eta ahal dela inguruaz nahiz giroaz goza dezatela".*

### Ana Conde
**Lehen edizioko irabazlea**

*"Lauagoa izango zela uste nuen; sufritzea tokatu da"*

### Aritz Egea
**Hirugarren edizioan bigarren**

*"Ibilbidea oso polita da. Lasterketa gutxitan egoten da horrenbeste jende"*

### Elena Calvillo
**Lehen edizioan hirugarren**

*"Zailtasunez beterikoa izan da. Lokatzarekin teknikoago bilakatu da lasterketa. Gogorra da, baina guk horrelakoak gogoko ditugu"*

### Aitziber Ibarbia
**Lehen edizioan laugarren**

*"Hankak lokatzetan iltzatuta geratzen ziren, zaila egin da ibilbidea osatzea. Oso polita da, gomendatzeko modukoa. Eguraldi onarekin zoragarria izango da proba"*

### Pere Aurell
**Bigarren edizioan bosgarren**

*"Gogorra izan da. Bukaera ez nuen horrela izango zenik imajinatzen, amaierako igoeratxo horiekin. Eskertzekoa da, bereziki ezinak jota zaudenean ikusleen bultzada aurrera jarraitzeko lagungarri delako"*



# Ibilbide gora-beheratsua







## Fitxa teknikoa

**Urnietako mendi lasterketa**
**Ibilbide luzea:**

- Irteera ordua, lekua: 09:30ean, Xoxokatik.
- Pilatutako desnibela: 3.146 m.
- Desnibela: 1.664 m.
- Distantzia osoa: 21,6 km.
- Gehienezko garaiera: 811 m. Adarra mendi.
- Gutxieneko garaiera: 145 m. Pardiola erreka.
- Helmuga ordua (gutxi gorabehera): 11:20.
- Helmuga: Xoxokan.

**Urnietako mendi lasterketa**
**Ibilbide motza:**

- Irteera ordua, lekua: 09:35ean, Xoxokatik.
- Desnibela: 1.018 m.
- Distantzia: 11,5 kilometro.
- Partaidetza: 100 partaide.
- Kadeteek 11.5km-ko ibilbidea gainerako korrikalariekin batera bete beharko dute.
- Helmuga: Xoxokan.

**Ibilbide luzea**
**Denborak eta pasalekuak:**

- Onddi 4.2 km.
- Adarra 9.2 km.
- Zaburu 12.7 km.
- Ur biltegia 17.9 km.
- Helmuga 21.6 km.

**Hornidura guneak:**

- Poxontarriko iturria (3.1 km): Ura.
- Munisko (4.9 km): Ura.
- Antsoko txabola (6.8 km): Ura eta janaria.
- Eteneta (10.1 km): Ura eta janaria.
- Otsolepo (13.2 km): Ura.
- Usabelartza (14.6 km): Ura eta janaria.
- Ur biltegia(17,7 km): Ura eta janaria.
- Besabi (19.6 km): Ura.
- Xoxoka (helmuga): Hornidura gune berezia.

**Hamaiketakoa proba amaieran:**

- Lasterketa amaitzean Xoxokako plazan.

Birziklatze tasa
%42

Zuri esker
Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60ra iritsiko da.
Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.
Gipuzkoa BERRIA

# Haur festa larunbat honetan

Urnietako mendi lasterketak hasieratik izaera solidarioa izan du, eta aurtengoan ere ildo berari eutsiko dio. Antolatzaileek indar guztiak lasterketa onena antolatzeko bilduko dituzte. Eta lan horrek bere etekina eman behar du, etekina hitzak duen zentzurik zabalenean. Batetik lor daitekeen ekarpen ekonomikoa, haurren gaixotasunak saihesten laguntzeko bideratuko dena. Eta, bestetik, kontzientziazioarekin loturik dagoena. Errealitate gordin hori lau haizeetara zabaldu nahi dute, herritarrek haur horiek eta haur horien familiak laguntzeko kontzientzia har dezaten. Aurten, kontzientziazio lan horretan, urrats bat eman dute aurrera eta larunbat honetarako haur festa antolatu dute herrigunean.

**GOIZEAN PUZGARRIAK; IRRIEN LAGUNAK DATOZ URNIETARA**

Goizean hasita, Irrien Lagunak ekimeneko puzgarriak ipiniko dituzte. Hasiera batean San Juan plazan, eta eguraldi txarra eginez gero, plazatik gertu dagoen Udal pilotalekuan.

Arratsaldean festa ederra antolatuko dute, Porrotx pailazoaren agerraldiarekin. Baina ez da hori pizgarri bakarra izango, lehen aldiz haurrei zuzenduriko lasterketa txikia antolatuko baitute. Antolatzaileek lan handia hartzen ari dira lasterketa txikia prestatzen, plazan zehar hiru menditxo irudikatzen dituzten maldatxo artifizialak eraikitzen baitabiltza.

**BOST EUROKO PULTSERAREKIN HAUR FESTAZ GOZATZEKO AUKERA EDERRA**

5 euroko pultsera erosita, goizeko eta arratsaldeko ekitaldi guztiez gozatzeko aukera izango da. Super H taldeak iragarri duenez, lortutako dirua gaixotasun arraro eta onkologikoen ikerkuntzarako baliatuko dute. Pultsera erosteko aukera badago Kantoi tabernan eta Eder dendan. Eta, noski, egun berean, haur festa ospatuko den toki berean. Hasiera batean, San Juan plazan. Baina, euriarekin, Udal pilotalekuan. Super H taldekoek deialdi argia egin diete urnietarrei, "anima zaitezte eta parte har ezazue elkartasunezko festa honetan. Izugarri eskertuko dizuegu eta!".




**HAUR FESTA URNIETAN ORDUTEGIAK**

11:00-13:00 Puzgarriak.
16:30 Festaren hasiera.
17:15 Beroketa ariketak.
17:30 Urnietako I. Mendi lasterketa txikia. Ondoren, zozketa eta txokolatada.



19:00 Festa amaiera.
*5 euroko sarrerarekin, ekitaldi guztietan parte hartzeko aukera dago.

> *"Anima zaitezte eta parte har ezazue elkartasunezko festa honetan. Izugarri eskertuko dizuegu eta!"*
> *Super H*
>
> *"Amonak esaten du ez dagoela eguraldi txarrik, arropa aproposa baizik"*
> *Porrotx*

**PORROTX PAILAZOA URNIETARA DATOR**

Astelehenean lasterketaren aurkezpen ekitaldia egin zuten, eta bertara Porrotx pailazoa hurbildu zen. Aurkezpen ekitaldia umorez betetzeaz gain, Super H taldekoei elkartasuna eta gertutasuna adierazi nahi izan zien. Larunbat arratsaldeko ekitaldien animatzailea Porrotx bera izango baita, haurren artean gehien maitatzen duten pailazoa. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak aski ezagunak dira, eta euren ibilbide guztian zehar elkartasunerako joera handia erakutsi dute. Joera horren isla da larunbat honetan Porrotxek Urnietan izango duen parte hartzea. Eguraldi txarra egingo duela? Porrotxek erantzun azkarra bota zuen: "Amonak esaten du ez dagoela eguraldi txarrik, arropa aproposa baizik". Lasterketa txikia plazan egin nahi dute, eta beroketa ariketak egiteko Porrotx bera izango da prestatzailea. Irrien lagun fina.

iturbe
SUKALDEA & ETXEA {1964az geroztik}
Igarategi Industrialdea 70, Behe solairua. Urnieta.
Bezeroen arreta-telefonoak: 943 552 750 - 688 632 191
Zure ongizaterako giroak diseinatzen ditugu
{Sukaldea} {Egongela} {Bainugela} {Logela} {Gazte-gela} {Sofa} {Atsedena} {Ehun-gaiak} {Dekorazioa}
www.mueblesiturbe.com

Nei
Muebles Kit Altzariak
Igarategi Industrialdea 70, 1 solairua. Urnieta.
Bezeroen arreta-telefonoak: 943 552 754 - 688 632 188
Eraman ezazu behar duzuna soilik!
Sukalde osoak, armazoiak, ateak, estalkiak, interiorismoak, etxetresna elektrikoak, egongelak, logelak, gazte-gelak, sofa, mahaiak, aulkiak, altzari osagarriak, atsedena, bulegoa,...
[Eraman eta munta ezazu zuk zeuk]

EUSKAHALDUN TXIKIAK ERE, KORRIKA

# Korrika Txikia

Egape, Salesiarrak eta Presentacion de Maria ikastetxeetakoak atera ziren lasterka asteazken goizean. Korrikaren kantua zeraman kotxearen atzetik, lekukoa eta pankartarekin batera, herrian zehar korrika aritu ziren.

Kolore ezberdinetako elastikoak zituzten soinean, petoarekin batera, eta guztiek elkarrekin, korrika saio koloretsu eta animatua eskaini zuten. Ondoren, plazan bildu eta Mikel Pagola alkateak ongi etorria eman zien. Azaldu zuenez, denon esku dago euskaraz pentsatu eta euskaraz hitz egitea, horrela lortuko baita euskahaldun izatea. “Udalaren izenean, gonbitea egin nahi dizuet larunbat honetarako. Hain zuzen, goizean pasako baita Korrika Urnietatik. Haur zein gurasoei parte hartzera gonbidatzen zaituztegu”, adierazi zuen.

Ikastetxeetako ikasleek ere hartu zuten hitza eta balkoitik bertso bana abestu zuten:

**1** Gustora asko pasa
Korrika maitea,
euskaraz hitz eginda
mingaina astintzea.
Tokatu zaigu guri
korrika egitea,
euskaraz hitz eginez
mugara iristea.

**2** Elkartu gara hemen
makina bat lagun,
euskaraz mintzatuaz
gara ta euskaldun.
Korrika gaur den arren
egunero jardun,
Urnietan geratu da
guk goza dezagun.

**3** Udaletxeko balkoi hontatik
Korrikarekin batera,
zuei denori gauzatxoren bat
esateko dut aukera,
gure hizkuntza zar honek badu
gauza bat dena ederra,
gu denok elkartzen gaituena
eta aberastu gainera.



San Juan plazan bat egin zuten ikasle guztiek.



Plazarako bidean, lasterkariak.



Ikasleek gogoz parte hartu zuten Korrikan.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

## Eskola ez da Dotriña

Dotrina aipatzen dudanean ez dut esan nahi dotrina ikaskuntza gisa, dotrina ematen den gune gisa. Gure belaunaldiarentzat eta aurrekoentzat dotrina hitzak bi esanahi edo zituen; batetik, ikasketa, eta bestetik, gunea, hots, dotrina ematen zen gunea. Bitxia dirudien arren, eskolan, neska eta mutilak bananduta egoten ginen eskolan. Ez zen erlijiorik ematen. Gogoan dut, entziklopedia genuela, non bildurik zeuden gai desberdinak eta hauen artean, Eskritura Sainduak ere bai, baina ez dotrinaren ikasketa.

Horretarako, alta, eskolatik kanpo denbora eta gune bereziak zeuden. Alegia, gunea sakristia zen, eta han ematen zen, ongi bereiztuta, dotrina. Txikienak apaiz bat eta beste birengandik pasa ondoren nagusienak erretorearekin aritzen ziren; azken kurtsoa esango genuke gaur. Pasa dira ba urteak eta neurri batean atzera pausoa eman dela esan genezake.

Erlijioa eskolatan aspaldidanik gai eztabaidagarria izan da. Diktadorea hil ondorengo urteetatik eta gobernu diferenteak ez dira gai izan arazoari erantzun egoki bat emateko. Funtsean, eta nire irudiko, nahiz eta teorian Espainiako Estatua akonfesional dela esan eta aldarrikatu, praxian ez du frankismoak Elizarekin egin zuen ezkontza hori hautsi. Esaterako, Zapaterok zertxobait egin zuen “Educacion para la Ciudadania” delakoarekin, erlijioaren gaia baino zertxobait aurreratuagoa zena. Noski, eta nolabait esateko, Elizari aurre egin zion. Baina, hona hemen PPren gobernua eta, giza arlo gehienetan bezala, hezkuntzan ere are eskubirago jo du. LOMCE izeneko legearen bidez erlijioa ebaluagarritzat jarri baitu. Honek esan nahi du zenbait ikaslek, nota hobeagoa lortu ahal izateko, klaseetara joanen direla, nahiz eta bost axola kontu hori. Erkidegoan ere izan dira iritzi kontrajarriak sindikatu eta Hezkuntza kontseilaritzarekin, baina azken batean, eta orokorrean, Madrileko esanetara makurtu direla dirudi. Eta hori gutxi balitz, edukiak ere agertu dituzte; gotzaniek ezarritako gaiak. Hala nola, ikasleek munduaren sorrerari buruz ikasi behar dutena: Jainkoak sortutakoa dela mundua alegia, eta familia dela soilik egitura absolutua eta horren barruan eman behar direla harreman sexualak, eta beti ere espeziaren ugaltzeari begira. Horiek bi perla besterik ez dira.

Badira, halere, gaiaren garrantzia neurtu eta benetako estatu laikoaren alde apustu eginaz horretan diharduten talde eta elkarteak. Hauetako bat “Europa Laíca” izenekoa. Talde honek urteak daramatza erlijioa eskoletatik atera dadin lanean, uste baitute konbikzio pertsonalak, erlijiosoak barne, ez direla eskolari dagozkionak. Eta, bide horretan, hauteskunde urtean gaudelari, hitzarmen antzeko bat sinatu nahi dute zenbait hautetsirekin boterea lortzen badute ekimen hori aurrera eramango dutela aginduz. Hitzarmenaren zenbait puntu honako hauek:

- Lehen aipatutakoaz gain, erlijioak beste zenbait arlori denbora kentzen dio.
- Erlijioaren zenbait eduki doktrinamendua dira, zientziaren eta giza eskubideen aurkakoak. Hala nola, orientabide sexuala, emakumearen askatasuna, unibertsoaren sorrera etab.
- Mutil eta nesken arteko hezkuntza ez dator bat zenbait dogma erlijiosorekin, non emakumea gizonaren menpekoa den.

Ikusten denez, mila arrazoi daude erlijioa garai bateko guneetara itzultzeko, hau da dotrinara, katekesira bideratzeko. Horrela, gizarte anitz batek eskatzen duen egiturara itzuliko ginateke, nor bere tokian jarriz, eta honen harira erakunde publikoak eta eliza ez lirateke sasi-ezkontza batean nahasiko.

### KORRIKA

Gure herri eta herrixkak zeharkatzen dabil. Gaur Donostiatik igaro da eta lagun artean hizpide izan dugu, eta ados geunden jende gutxi ikusi dugula parte hartzen. Dena den, horrelako ekimenak ongi daude beti ere gero euskara praktikan lantzen badugu, elkarbizitzan nahiz idazterakoan, irakurtzerakoan etab. Eta zutabe hau aprobetxatu nahi dut, berriro, esateko, harrituta nagoela nola Aiurri zabaltzen den eskualdean, ez dagoen kezka gehiago idazteko, iritziak emateko, eta, horrelako tresna bat, euskara suspertu, landu eta erabiltzeko, eta, nola ez, gizarteari buruz ideia desberdinak aurrez aurre jartzeko, beti ere errespetu giroan. Honetan ez badugu aurrera pausorik ematen, Korrika bezalako ekimenak sinbologia hutsean geratzeko arriskua dago.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

## 36ko Gerran erraildako bost senideren agerraldia



**Frankismoaren biktimen senideak Ana Carrere alkatearekin.**

Frankismoak Andoainen eraildako bost biktimen senideek agerraldia egin zuten udaletxean, martxoaren 21ean. "Oroituz, Andoainen" elkartearekin batera egindako txosten pertsonalak aurkeztu zizkieten Ana Carrere alkateari eta Jose Maraña idazkariari. Fedea eman zuten euren sinadurarekin, ekitaldiarekin ofizialtasuna emanez.

1936ko abuztuaren 30ean Tolosan erail zituzten Cruz Aldasoro, Antonio Aranzabal, Pio Arzallus eta Nemesio Fernandez andoaindarren eta Migel Amundarain oriatarraren inguruko txostenak eraman zituzten udaletxera. Era guztietako agiriak dira: familiartekoekin egindako elkarrizketen ahozko eta irudizko lekukotzak, artxiboetako agiriak, argazkiak, eskuizkribuak... Laurehundik gora agiri dira guztira, aurrerantzean Udal Agiritegian gordeko direnak.

## Irabazi Ganemos Andoain taldearen asanblada irekia




Otsailaren 20an Urigainen aurkezpen ekitaldia egin eta gero, Udal haustekundeetarako koalizioak bilera berria deitu du ostiral honetarako.

Arratsaldeko 18:30etan hasita, Pio Baroja kaleko 5. zenbakian dagoen Komunisten tabernan ipini dute hitzordua. Bertara gonbidatu dituzte auzo mugimenduetako kideak, kultur elkarteak, gizarte mugimenduak eta herritarrak oro har.

## Gure Esku Dago taldeak deitutako mahai-ingurua



"Katalunia-Euskal Herria: Erabakitzeko eskubideari bidea ireki!" izenburupean Kataluniako eta Euskal Herriko ereduak hizpide izan zituzten Andoainen.

Bilera ostegun honetan; Koadrilen eguna apirilaren 25ean

# Koadrilen eguna lotzeko bilera garrantzitsua

Koadrilen eguna aste bat aurreratzea erabaki du Jai Batzordeak. Bi arrazoi nagusi dituzte. Olatz Esnalen esanetan: "Batetik, ikusi dugu bazkari aurreko herri kiroletan eta poteoan, urtez urte, parte hartzea jaisten ari zela. Iruditzen zaigu egun hori jaien barruan txertatuta egonik, bezperako parrandak eta abarrek eragiten dutela beherakada horretan. Astebete aurreratuz, koadrilak goizetik indarrez etorriko direla pentsatzen dugu. Bestalde, aurtengo jaiak hiru egunera murriztu direnez, eta egitaraua estutu behar izan denez, ez zegoen tarterik kuadrilen eguna osorik sartzeko".



**Atzean Kepa Sarasola, Oroitz Gonzalez, Olatz Esnal. Aurrean, Leire Otermin, Uxue Iturriondobeitia, Eneko San Jose, Olaia Zapirain eta Maider Balda.**

Bazkariaren aurreko giroa berotzeko herri kirolak antolatuko dituzte berriz ere. Aldaketekin, hori bai: finalak bazkariaren ondoren egingo dira. Bazkaria, berriz, Zumea plazan egitea espero dute, Eneko San Josek irribarrea ezpainetan duela adierazi duenez: "Ea eguraldiak laguntzen digun, ze azken urteetan Ondarretako jolastoki estalian egin behar izan dugu". Egun handi horri begira, Zubiaurreko parean eszenategi txiki bat eta txosna jarriko dituzte.

### PREGOIA, DENDARIEN ESKUTIK

Kale Nagusian dendari izan diren edota izaten jarraitzen duten pertsonen eskutik helduko da aurtengo pregoia. "Kale Nagusiko inguruari bizitasuna eman diote betidanik, eta horiek ere bere aitormena eta jaietan tokia merezi dute". Pregoiaren ekitaldia girotzeko asmoz, hiru zutabe irtengo dira beste hainbeste lekuetatik: Basterotik txaranga, Zumeatarra elkartetik danborrada eta Zumea Plazatik konpartsa. Denek ere, Zubiaurreko etxean egingo dute topo, pregoiari hasiera emateko.

### JAIALDI HANDIA BASTERON

Hamaika urte dira, etengabe, Kamioi Baby Band taldea Santakrutzetako jaietan parte hartzen hasi zenetik. Kideek modu berezian ospatu nahi dute 2015a. Horretarako, Basteroko auditorioan musika eta dantza jaialdia eskaintzeko asmoa dute. Hilabeteak daramatzate entseguetan murgilduta, ikuskizuna prestatzen.

Aurten, bestalde, herri lasterketarekin batera, estraineko aldiz, patinaia lasterketa antolatuko dute. Geroz eta gehiago dira kirol horretan dabiltzanak; proba modukoa izango da aurtengoa.

### ELEGANTE EGUNA, IGANDEAN

Haur eta gazteen eguna larunbatekoa izango da. Pailazoak, antzerkia, puzgarriak, bizikleta jaia..., ekitaldiak ez dira faltako. Jaien azken egunean Elegante eguna ospatuko dute. Kepa Sarasolak adierazi duenez: "Indartzen joan da orain bi urte sortu zenetik, eta erronkatzat hartu dugu aurtengoa; izan ere, bat egingo du sagardo egunarekin. Arriskua hartzea izan liteke, baina jendeak harrera ona egin izan dio orain arte, eta beraz arrakastatsu izaten jarraituko duela iruditzen zaigu".

### BELAUNALDI BERRIA JAI BATZORDEAN

Albiste pozgarria eman du Santa Krutz jaien Batzordeak azken bizpahiru urteetan: gazte jendea prest agertu da antolaketan aritzeko, poliki-poliki urte mordoan lanean jardun dutenei atseden emanez.

### ESPERIENTZIA ZIRRARAGARRIA



Aurreko asteburuan Udal musika eskolako abesbatza gaztea Gotainen kantari aritu zen. Bidaia ondo baino hobeto baliatu zuten, besteak beste, hango kulturgileekin harremanak egiteaz gain, Mauleko maskarada ikustera joan baitziren. Irudian Gotaineko dantzariekin.

Beterri garapen agentzia sortu gabe dagoela salatu du EAJ-k

# EAJ-PNVren agerraldia Astigarragan




**Buruntzaldeko EAJko Udal hautetsiak. Zutik, ezker eskuin, Usurbil, Hernani eta Andoaingo ordezkariak. Eserita, Urnieta, Astigarraga eta Lasarte-Oriakoak.**

Buruntzaldeako EAJ-PNVko ordezkariek salatu dute garapen agentziak eratu gabe jarraitzen duela eta, ondorioz, Bildu "herritarrak eta enpresak nahasi nahian" dabilela. Mikel Pagolak azaldu duenez, erakundea ez dago martxan eta udalbatzek ez dute agentzia eratzea onartu.

"Forma juridikoa soilik falta dela gezurra da, gauza asko falta dira erabakitzeko: nork osatuko duen agentzia, zeinek lan egingo duen, zein izango diren garatuko diren proiektuak eta plan ekonomiko finantziarioa…" adierazi du. Pagolak argi utzi nahi izan du agentzia eratzea udalbatzen eskumena dela eta gaia Hernani, Astigarraga eta Usurbilen bakarrik eztabaidatu dela; hiru kasuetan estatutuak soilik onartu direla azpimarratuz.

*"Erakundea ez dago martxan eta udalbatzek ez dute agentzia eratzea onartu"*

Hauteskundeak iristear dauden honetan, Bilduk "etekin politikoa" lortzeko asmoa duela uste dute. Horregatik, Buruntzaldeako sei ordezkari jeltzaleek mozioa aurkeztu dute Beterri eratu dela gezurtatzeko.

Egoera honen aurrean, koalizioari atzera egiteko eskatu diete: "Agentzia ez da eratu eta ez da eratuko, baldin eta koalizioak atzera egin eta gainerako alderdiekin adostasuna bilatzen ez badu", azaldu du Urnietako alkateak.

"Guztiok ados gaude eta eskualdeko agentzia egon beharko lukeela uste dugu; kontua da nolakoa nahi dugun. Hor dago aldea. Gauza asko daude adosteko, eta hor, alderdien arteko negoziaketa egon behar du".

Oraingoz, alderdien artean distantzia eta mesfidantza handia dagoela dio Mikel Pagolak, eta aurrerantzean, "baldintzak ematen direnean" hasiko dira alderdi eta udaletxeen arteko harremanak berriro lantzen.

**JELTZALEEN PROPOSAMENA**

EAJ-PNVk lanean jarraitzen du eta proposamen "parte hartzaile eta bateratzailea" prestatzen ari da. Datorren asteetan aurkeztuko dute proiektua, "eragileekin egiaztatu eta ekarpenak jaso ondoren". Azaldu dutenez, dokumentua banatuko diete eragile, enpresari eta politikari guztiei, "proposamen itxi bat izan ordez, guztion onarpenak eta iritziak jasotzeko".

# KIROL ALBISTEAK

## Alebin eta infantil mailako lasterketa Kaleberrian



**Andoaingo Txirrindulari Eskolak** aurreko igandean lasterketa antolatu zuen, herrigunean bertan. Eskolako eta inguruko herrietako partaideen parte hartzearekin, goiz polita igaro zuten. Nabarmentzekoa da gaztetxoen ekimena. Eskolakoak bereziki: Ibai Omeñaka, Iker Atxaga, Unai Galarza, Daniel Fursenko, Laiene Pikabea eta Iker Balbas.

## Saskibaloi taldeko kideak garaipenaren bidean doaz

**EMAITZAK:**

| | |
|---|---|
| **Ganbara Seniorrak** | **55** |
| **Legazpia** | **36** |
| Añorga | 30 |
| Ganbara Kadeteak | 34 |
| Ganbara Infantilak | 29 |
| LEK | 47 |

**ASTEBURUKO PARTIDAK:**

**Tolosa–Ganbara Seniorrak**
Larunbata, 28. 14:00.
Tolosa, Usabal.

**Ganbara Kadeteak-Hernani**
Larunbata, 28. 12:15.
Andoain, Alllurralde.

## Euskaldunak liderra jasoko du etxean, Urnieta garaituta

**Aurreko asteburuan:**
Urnieta 1-3 Euskalduna

**Asteburuko partidak:**
Euskalduna-Orioko
Larunbata, 28. 17:30.

**Preferente maila**
**Sailkapena, futbola:**

| | |
|---|---|
| 1. Orioko | 58 |
| 2. Euskalduna | 55 |
| 4. Urnieta | 45 |

## GRAVNI txapelketan partida erabakiorra

Aste Santuko oporraldiaren aurretik Julen Loitegik Gipuzkoako selekzioarekin garrantzia handiko partida jokatuko du larunbat honetan, Irurako trinketean. Arratsaldeko 14:30etan hasiko da partida. Loitegi atzelari lanetan arituko da.



**Oharra:** Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.

Aiurri BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Iñistorra. TOKIKOM. Ekoizlea: ERROITZ BALTZU MUGATUA. Laguntzaileak: Eusko Jaurlaritza. Gipuzkoako Foru Aldundia. Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du: ANDOAINGO UDALA. URNIETAKO UDALA

**Argitaratzailea:** ERROITZ BALTZU MUGATUA

**Aiurri eskuragarri:** Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:** Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain Tel.: 943 300 732 Faxa: 943 300 731 **@:** andoain@aiurri.com **Webgunea:** www.aiurri.com

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

**Diseinua:** Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:** Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnieta). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte–Iruñea.

# Agenda

**MARTXOAREN 26TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com**

## Zinema

**Andoain, Bastero**

- **"La teoria del todo".** 19:30, 22:00. Martxoak 28, larunbata. 19:30. Martxoak 29, igandea. 19:30, 22:00. Martxoak 30, astelehena.
- Haurrentzat: **"El libro de la vida".** Martxoak 28 eta 29. 17:00.

**Urnieta**

- **"Noche en el museo 3".** 16:00, 18:30. Sarobe. Martxoak 29, igandea.

## Tailerrak

**Urnieta**

- Tai Chi saioak. Gazte Asanbladaren eskutik. 10:30-11:30. Ludoteka. Igandero. Doan.

## Jardunaldiak

**Urnieta, Sarobe**

- **Bake eta bizikidetza jardunaldiak, II. edizioa.** Antzerki foruma, partaidetza mugatua: 11:15 Gaztelaniaz. Martxoak 28, larunbata.

## Aisialdia

**Urnieta**

- Aste Santu aurreko hiru egunetan eta Pazko astean tailerrak, jolasak eta irteerak.

## Erakusketa

**Andoain, Bastero**

- "Andoaingo kaleak denontzat berdin (=)". Hobetu beharreko puntuen mapa osatzeko prozesua. Azken eguna: martxoak 28.

## Ospakizuna

**Urnieta**

- Mendi lasterketaren bezperan, haur festa Super H elkartearen alde: lehen lasterketa txikia, Porrotx, tailerrak, puzgarriak, etab. 11:00-13:00 Puzgarriak. 16:30 Jaiaren hasiera. 17:30 Urnietako I. mendi lasterketa txikia. 19:00 Jaialdiaren amaiera. San Juan plaza. Martxoak 28, larunbata.

## Udalekuak

**Andoain**

- 7 eta 13 urte artekoentzat, **"Udalekuak 2015"** deialdia. Informazioa Gazte Informazio bulegoan. Martxoaren 18tik 30era.
- Kili Kolo Kooperatibak aisialdi begirale praktikak egiteko aukera eskaintzen ditu Andoaingo udaleku irekietan. Udalekuak ekainaren bukaeratik uztailaren 30a bitarte burutuko dira. Kurrikuluma bidaltzeko: info@maindi.com.

## Musika

**Andoain, Bastero**

- **400 Irri banda:** "Andoaindarrak 400" ekimenaren baitan apirilaren 26an, Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera Andoaingo musika eskolako banda eta abesbatza txikia, eta musika eskolako ikasleak elkarrekin arituko dira. Sarrerak dagoeneko salgai daude Basteroko lehiatilan. 17:00, 19:00. Apirilak 26, igandea.

## Batzarra

**Andoain**

- Udalaren osoko ohiko batzarraldia. 09:00. Martxoak 26, osteguna.

## Txapelketa

**Andoain**

- Andoaingo Kale Nagusiko mus txapelketa, honako taberna hauek antolatuta: Olajauna, Txuri Beltz, Txindoki, Irunberri, Gaztelutxo. Lehenengo saria: 800 euro eta txapelak. Bigarren saria: 400 euro. Lehen zortzi sailkatuentzat sariak. Parte hartzaileen artean oparien zozketa. 16:00. 20 euro bikoteko. Martxoak 29, igandea.

**DATORREN AIURRI ASTEKARIA APIRILAREN 10EAN ARGITARATUKO DA**

# ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



Apirilaren 12an **Axel** eta **Amane** bikiek 2 urte. Tartaren kandelak itzaldu eta denon artean jango dugu! Etxekoak.

**ANDOAIN-ADUNA**

**ZORIONAK**



**Libe Izagirre Usarralde**k apirilaren 3an, 3 urte egingo ditu. Zorionak eta muxu pila etxekoen partez gure printzesarentzat!

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Ixi** etxeko poxpolinak 10 urte beteko ditu apirilaren 5ean. Jarraitu horrela, bixkor eta atsegin. Ama, aita, Markel, Juanin.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Andoni Irazu Jauregi**k martxoaren 30ean 11 urte beteko ditu, **Nerea** bere arrebak, apirilaren 7an, 9 urte. Ondo ospatu zuen urtebetetzea, kandelak itzaltzeko prest al zaudete? Muxu handiak, etxekoak.

**ANDOAIN**

**ZORION-AGURRAK** 619 163 537, WHATSAPP.

# Mugikortasuna errazteko "Atera" programa Urnietan



Gipuzkoako DYAk etxeetatik jaisten eta igotzen lagunduko dieten edota herriko toki batetik bestera eramango dituzten egokitutako ibilgailuak eta baliabideak ditu, mugikortasun murriztua duten herritarrei zuzendua. Udalarekin sinatu berri duen hitzarmenarekin, zerbitzua eskainiko diete hainbat herrikideei.

# "Enpatia" erakusketa



Egape Ikastolak enpatiari buruzko erakusketa antolatu du aste honetan. Izan ere, ikastolako aurtengo helburuetako bat besteen sentimenduak ulertzeko eta bat egiteko gaitasuna garatzea da. Ikastolako eragile ezberdinek hartu dute parte erakusketan: gurasoek, ikasleek, irakaslek, langileek... Martxoaren 24an eta 25ean ikusgai izan zen.

**Pazko astea 2015**

943 008 033
sustapena@urnieta.eus

**Sormen tailerrak**
**Apirilak 7-9.** Aranzubiko ludotekan

**11:00-13:00 Txokoa**
*5-8 urte bitartekoak*
Kristalezko bola eta misterpotato tailerrak eta mugimendu jolasak.

**17:30-19:00 Topagunea**
*9-11 urte bitartekoak*
Ispiluak margotu-grabatu tailerra eta mugimendu jolasak.

**Buruhandi tailerra**
**Apirilak 7-10.** Lekaion

**10:00-12:30**
*9-11 urte bitartekoak*
Maché papera eta kartoiarekin. Izen ematea: Lekaion, apirilaren 1a arte. Prezioa: 39,62 €.

**Ludobus**
**Apirilak 10.** San Joan plazan

**11:00-13:00**
*Adin guztientzat*
Eguraldi txarrarekin Egapen.